Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

413

Urtarrilak 15, 2022

“Rapa nahiko gordina eta zuzena egiteagatik nabarmentzen naiz”

Laina, rap abeslaria

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 CBAko proiektua
6 Modei Boda
7 Javi Aguirre
8 Kirolak: Ander Gamón
9 Kirolak: Ane Bayo
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Laina
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

15

38562

40344

"El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. 1922ko urtarrilaren 22an argitaratutako lehen artikuluan G. Echeverriak Irunek dauzkan abantailak azpimarratzen ditu, Donostia edo Espainiako estatuarekin alderatuz. Yole kolaboratzaileak berriz, heriotza azkeneko guduarekin alderatzen du aldizkariaren zenbaki honetan argitaratutako olerkian. Ostean, estatuaren eta aduanako agenteen arteko norgehiagokak utzitako azken albisteak biltzen dira; langileen batasuna lortu bada ere, ez du inolako emaitza onik ekarri. "Charlas Femeninas" atalaren azken kapituluan Gurutze Gorriari laguntzeko Antzoki Nagusian antolatuko den festaren berri ematen da, emakumeek bertan parte hartzeko aukera izango dutela azpimarratuz.

Kirol kronikan Real Union taldeak Realari irabazi izanaren albistea ematen da, ikuslego jendetsua izan zuen partiduaren nondik-norako guztiak azaltzen dituzten hainbat artikulurekin batera. Aduanaren gairi berriro ekinez, desadostasunek eragiten dituzten atzerapenak agerian geratu dira. "En el municipio" atalean, berriz, azken udal bilkurako parte-hartzaileak zeintzuk izan ziren eta zer erabaki hartu ziren zehazten da.

Re-la-mi-do kolaboratzaileak "El Bidasoa" aldizkarian txiste onenak biltzeko lehiaketa bat hasi duela iragarri du, ekarpen barregarrienak aldizkarian argitaratuko direlarik. Beraz, aldizkariaren erredakzioak txisteak bidaltzera gonbidatzen ditu irakurleak. Jarrain, udal hauteskundeetarako hilabete bat baino gutxiago falta dela aipatzen da, udalbatzaren osaketak duen garrantzia gogoratzeaz gainera. "De todo un poco" atalean, aldiz, Real Union klubak kirol zelaiaren eraikuntzaren inguruan dituen zalantzak azaldu ditu. Bestetik, Guillermo Iguarán irakasleari ikasleek egindako omenaldia aipatzen da. Azkenik, "Noticias" atalaren ostean, publizitate orrialdearekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 334. zenbakia.

Argazkiak:

15: Trenbideko langileak Letxunborro baserriaren aurrean, besteak beste, Manuela eta Pedro Peña Loidi haurrekin eta Nicolás de Lechumborrorekin batera, XX. mendeko lehen laurdenean.

38562: Zabalguneko plaza, musika kioskoa, Correos eraikina eta Antzoki Zaharra (1950eko hamarkada).

40344: El Pinarreko futbol zelaia, atzean Hondarribia ikusten delarik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Bidasoko Minbiziaren Aurkako elkarteak "Lasai Josten" tailerrak antolatzen ditu asteazkenero

Bidasoko Minbiziaren Aurkako elkarteak "Lasai Josten" tailerrak antolatzen ditu. Tailerra astean behin egiten da eta josteko zaletasuna duten pertsonak elkartzen dira bertan. Lasai Josten tailerren helburua bularreko minbiziaren ebakuntza izan duten pazienteei linfedema prebenitzen laguntzeko burkoak sortzea da.

Lasai Josten tailerrak asteazkenero egiten dira, Minbiziaren Aurkako elkarteak Irungo Foru kaleko 4. zenbakiko lehenengo solairuko ezkerrean duen egoitzan. Tailerrak ordubeteko iraupena du, arratsaldeko 17:00etan hasi eta 18:00etan amaitzen baita. Lasai Josten tailerretan parte hartzeko aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da eta izen ematea 943 63 01 15 edo 943 45 77 22 telefono-zenbakietara deituz egin behar da.

Tailerra pazienteei, senideei, boluntarioei eta herritar orori zuzenduta dago eta sortutako burkoak behar dituzten pazienteen artean modu solidarioan banatuko dira. Jarduerak, sormena sustatzeaz eta talde sentimendua bultzatzeaz gainera, Minbiziaren Aurkako elkarteak Irunen Bidasoa eskualderako dituen zerbitzu eta baliabideen programa osatzen du.

Colón pasealekua asfaltatzeko lanak hasi dira

Hiriko kaleak asfaltatzeko egiten ari den kanpainaren barruan, Irungo Udalak jakinarazi du urtarrilaren 12tik aurrera Colón pasealekua asfaltatzeko lanei ekingo zaiela. Aste batzuk iraungo dute lan horiek.

Aurrena, Gipuzkoa hiribidearen eta Francisco de Gainza kalearen arteko tartea asfaltatuko da. Galtzada hobetzeko lanak egingo dira, arekak konpontzea eta bidea berrasfaltatzea, funtsean.

Ez da zirkulazioa moztuko, baina lanek ibilgailuen joan-etorriei eragingo diete. Errei bakar batean egingo dira lanak, txandaka, eta beste biak libre utziko dira, bat noranzko bakoitzean. Behobiara doan aldean hasiko dira lanak, eta aurrerago kontrako noranzkoan osatuko dira.

Lanen iraupenari dagokionez, eguraldiaren araberakoa izango da baina, hasiera batean, gutxi gorabehera hilabete irautea aurreikusten da. Kanpainak 300.000 euroko aurrekontua du, eta hobekuntzak egingo dira hiriko beste eremu batzuetan ere: Nafarroa hiribidea (San Juan plazaren eta Fermín Calbetón kalearen aldean) eta Darío de Regoyos kalea (hau egin da dagoeneko, eskailera mekanikoen eta José María Franco kalearen gaineko zubiaren arteko zatian).

Bueltan da 'Ricardo Requejo' ganbera-musikako zikloa

Bertako artista batzuek, Irungo Udaleko Kultura arloaren eskutik, "Ganberako igandeak" musika-programa jarri zuten martxan 2018an. 2019an, "Ricardo Requejo Ganbera Zikloa" izena hartu zuen, proiektuaren alma mater izan zenaren omenez, hala izan baitzen pianista irundarra, hiriko Urrezko Domina ere jaso zuena, 2018ko azaroan zendua.

Kontzertu ziklo hau bosgarren ediziora iritsi da, eta urtarrila eta maiatza bitartean ospatu ohi da. Hirian musika ikasten hasi ziren irundarrak eta hondarribiarrak izaten dira protagonistak. Orain, Espainiako eta Europako orkestretan lan egiten dute, edo ibilbide luzea duten ikastetxeetan irakasten dute. Bada, Irunera itzuliko dira ikasitakoa erakustera.

Aurtengo lehen kontzertua urtarrilaren 16an Maria Jose Barandiaran pianistak eta Iagoba Fanlo biolontxelo jotzaileak eskainitakoa izan da. Hala ere, maiatzera arte beste hitzordu asko antolatu dira. Otsailaren 6an, María Gómez (flauta), Jesús Ventura (oboea) eta Jonathan Millak (pianoa) osatutako Trío Isósceles taldeak joko du. Otsailaren 20an Ekhi Martinezen (biolina) eta Irini Gaitaniren (pianoa) txanda izango da. Hilabete geroago, martxoaren 6an, Larrea boskotearen emanaldiaz gozatzeko aukera izango da eta apirilaren 3an, piano eta ahotsez osatutako seikote batek beteko du Amaia antzokiko eszenatokia. Ricardo Requejo zikloaren edizio berri honi amaiera emateko, maiatzaren 8an Maite Tifék (moko flauta) eta Johchi Hakamadak (gakoa) ikuskizun bat eskainiko dute.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

CBA liburutegia handitzeko proiektua forma hartzen hasi da

Carlos Blanco Aguinaga kulturgunearen bigarren faseko proiektuaren ildo nagusiak aurkeztu dira. Tokiko Gobernu Batzarrak joan den abenduko azken astean onartu eta lizitatu zuen proiektua. Aurkezpenean José Antonio Santano alkateak, Cristina Laborda Obretako ordezkariak eta Eunate Encinas Kultura arloko zuzendariak parte hartu dute.

Egun CBA kulturgunearen azalera 2.700 m2-koa da eta proiektu berri honen bitartez azalera 2.400 m2 handituko da. San Juan plaza azpian egokituko den eremu horretan espazio berriak sortuko dira, eta horrek hiriko kultur programazioa sendotzeko aukera emango du. José Antonio Santano alkateak azaldu duenez, "espazio hau osatzeko konpromisoa eta ideia dugu, CBAn dugun espazioa bikoizteko".

José Antonio Santano alkateak urte honetako inbertsio nagusietako bat kulturari eskainiko zaiola aurreratu du lanak egikarituko diren eremuan. "Duela zazpi urte zabaldu zen CBA, eta iraultza izan zen, oso aldaketa onuragarria hiriko kultur eskaintzaren barruan", adierazi du Irungo alkateak. Orain dela 7 urte ateak ireki zituen liburutegi handi, moderno eta irisgarri hori osatzeko, orain San Juan plazaren azpian libre geratzen zen hutsunea beteko da.

Horrela, kulturgunearen espazioa bikoiztu eta ekipamendu berriekin osatuko da. Alkateak azpimarratu duenez, "Irun erdialdeko espazio berri hau guk sortu dugu, aurretik ez zelako existitzen". Irungo alkateak azaldu duenez, normalean hirian ekipamendu berriak eraikitzerakoan, dauden espazioak okupatzen edo eraldatzen dira. Espazio berriak sortzerakoan hiriari lekua kendu ohi zaiola azaldu du José Antonio Santanok, baina, kasu honetan, aurkakoa gertatu da eta San Juan plazan espazioa oinezkoen erabilerarako egokitu da. Guztira, San Juan Plazako lurpean 5.000 m2-tik gorako espazio bat egongo da, kulturarako eta gazteentzako eskaintzarako sortua izan dena eta erakusketagune eta espazio eszeniko betekin osatuko dena".

Eunate Encinas Kultura arloko zuzendariaren hitzetan, "abangoardiako filosofia duen kultur zentro baten aurrean gaude, publiko guztiari irekia egongo dena". Herritarrak arteekin elkartzea bultzatu nahi dugu, arteen sorkuntzarekin eta hedapenarekin. Irungo alkateak azaldu duenez, "kultur eskaintza zabalduko da, hiriko gazteentzat pentsatutako proposamenei arreta handia eskainiz". Kultura arloko zuzendariak azaldu duenez, proposamen konstelazio bat da, non modu multidisziplinarrean planteatutako elementu bat egituratu nahi den, era kotenporaneoan, non talentu gaztea babesten den.

Areto berria hirian

Kulturgunearen eremu berrian sortuko diren espazioen artean, kontzertuak eta bestelako emanaldiak antolatzeko areto bat nabarmentzen da. Aretoarekin batera, kamerinoak, komun publikoak, biltegiak eta Prudencia Arbide karrikan materialak zamatzeko gune bat ere egokituko dira. Batetik, agertoki klasiko bat instalatu ahalko da 91 eserlekuko harmaila barneragarri batekin, hitzaldiak eta ikus-entzunezkoen proiekzioak antolatzeko aukera emango duena. Gainera, bi, hiru eta lau besaulkiko beste 62 eserleku instalatu ahal izatea aurreikusten da, aretoaren askotariko erabilerak errazteko. Horrela, agertokia aretoaren erdian jarri ahalko da, eserlekuz inguratuta. Azkenik, jendeak zutik ikusteko moduko ikuskizunetarako erabili ahalko da aretoa.

Aretoa berritasun handia izango da hirian, egun ez baita horrelako ezaugarriak dauzkan bestelako espaziorik. Hortaz, areto berria sortuta, kultur programazioa nabarmen sendotu ahalko da. Gainera, CBA sortu zenean "hizkuntzak eta mintzairak" izan zen espazioaren sorrerarako erabilitako leloa eta lelo horri jarraiki lan egin du Kultura Arloak. 2015ean zabaldutako liburutegian hitzarekin eta hizkuntzarekin zerikusia duen oro lantzen da. Bigarren fasean, berriz, kultur, gazte eta arte mintzairen munduari helduko zaio. Beraz, musikak, arte bisualek, antzerkiak, dantzak, ikus-entzunezkoek, eskulturak, modak, argazkilaritzak eta ikerkuntza artistikoek lekua izango dute bertan.

Era berean, lekua egingo zaie Irun Zuzenean eta Irun Factory markei eta jardueren agenda dinamizatuko duten beste programa batzuei, arte eta kultura garaikidea sortzeko, trebatzeko, eskuratzeko eta zabaltzeko aproposa izango den espazio batean. Enaute Encinasek azaldu duenez, "jendea kulturarekin elkartzea lagundu nahi dugu". Irun Factory-ri dagokionez, sorkuntzagune berri bat eraikiko da proiektuak gune publikoetan arte garaikidea ikusaraztea baitu helburu. Irun Zuzenean zerbitzuaren kasuan, musika hirirako marka gisa landu nahi du, eta Irunen formatu ertaineko kontzertuak emateko areto bat falta zen. Gainera, hirian sortutako gune honek talentu berria eta km0 kultura babesteko balio izatea nahi da.

Beste hainbat erabilera

Kulturgunearen espazioa zabaltzearekin batera, egun liburutegian dagoen ikasketa gela handitzeko aukera emango du. Bestalde, formatu ezberdinetako erakusketak jartzeko espazioa sortuko da. Gainera, bilerak eta tailerrak egin ahal izateko langelak sortuko dira. Gazteartean gazteria zerbitzuak ere bere jardunerako gune bat izango du. Azkenik, artxiboaren aretoa handitu eta instalazioak osatzeko komun gehiago jarriko dira.

Bigarren faseko proiektua, lehenengoarekin egin zen bezala, erdiko patio obalatuaren inguruan txertatuko da, hori baita kulturgunera argi naturala sartzeko bide bakarra. Patioa kulturgunearen barruan orientatzeko erreferentzia bat izango da eta erabilera nagusiko eremuak, hau da, erabiltzaileek luzaro egongo diren lekuak, haren inguruan kokatu nahi izan dira. Cristina Laborda Obretako ordezkariak azaldu duenez, "guztion artean, gune zentral handi bat irekita uzteko beharra ikusi dugu, San Juan plazaren inguruan inguru berriak sortzeko ideiarekin jarraitzeko".

Kulturgunea handitzeko lanak egitearekin batera, Alde Zaharretik kulturgunera sartzeko sarrera berri bat kokatu da Jesus karrikan. Egun liburutegiak patioan duen sarrera bakarrean, aldiz, egokitzapenak egingo dira bi mailetako sarrerak sortzeko. Batetik, oinezkoen pasabide egokitu bat eta soto mailan beste sarrera bat sortuko da. Proposamenak oinplano libreko barne hall baten bidez biak lotzea eta eremu jarraitu bat sortzea aurreikusten du, non jarduera eszenikoak eta askotariko beste jarduera batzuk egin ahalko diren. Guztira, jarduketaren aurrekontua 3.880.570,25 euro da, BEZa barne, eta lanak egiteko epea hamabi hilabetekoa da.

Hodei Boda, Olinpiar Jokoen antolaketaren parte den irundarra

Hodei Boda Pekinen otsailean jokatuko diren Neguko Olinpiar Jokoen antolaketan inplikatuta dago. Zehazki, eski alpinoaren atalaren antolaketaz arduratzen da. Negukoak ez dira bere lehen Olinpiar Jokoak izango, aurretik Tokioko jokoen antolakuntzan parte hartu baitzuen. Hodei Bodak Olinpiar Jokoen antolaketan lan egitea nolakoa den eta zereginak nola antolatzen dituen azaldu du.

Inoiz lanpostu hau izatea amestu zenuen?
Ez, egia esan. Nik Madrilen INEF ikasketak egin nituen eta bukatzerakoan kirol antolakuntzari buruzko master bat egin nuen. Masterra amaitu ostean, lagun batekin hizketan hasi nintzen eta bere anaia Olinpiar Jokoetan lanean ari zela kontatu zidan. Horrela, Taipei unibertsitateetan lanean hasi nintzen, gero Turkmenistanen ere egon nintzen. Hasiera batean Olinpiar Jokoak ez diren beste joko batzuetan hasi nintzen lanean. Bartzelonatik eta Pyeongchangetik Neguko Olinpiar Jokoetan lanean egon nintzen urrunetik. Tokioko jokoetarako deitu zidaten eta orain arte bertan egon naiz lanean.

Zein da zure kargu zehatza?
Tokioko jokoetan txirrindularitza ataleko emaitzen kargura egon naiz. Madriletik lan egin dut, Olinpiadetan gerta zitezkeen egoera posibleak aztertzen, kasu bakoitzean hartu beharreko erabakiak zehazteko. Izan ere, berdinketak, kanporaketak eta beste milaka arau daude txapelketaren emaitza baldintzatu dezaketenak. Beraz, Olinpiar Jokoak hasi aurretik egoera horiek guztiak aztertzen ditugu eta, behin jokoak hasten direnean, bertara goaz badaezpada espero gabeko zerbait gertatzen bada, konponbide azkar bat bilatzeko. Azken batean, gure helburua jokoak ondo ateratzea da.

Neguko Olinpiar Jokoetarako dena prest dago?
Bai, hori espero dugu. Urtarrilaren 14an Pekinera joango naiz eta espero dut herrialdera sartu ahal izateko Covid-19arengatik arazorik ez izatea. Jokoak otsailaren 4an hasiko dira, baina nire lana apur bat lehenago hasten da, entrenamenduek ere emaitzak dituztelako eta dena koordinatzeko bertan egon behar naizelako.

Neguko Olinpiar Jokoen barnean, zer kirolez arduratuko zara?
Eski alpinoaren atala lantzea egokitu zait eta Neguko Olinpiar Jokoetan eta paralinpiar jokoetan bertan ibiliko naiz lanean.

Oso ezberdina da kirol modalitate bat edo bestea koordinatzea?
Bai. Kirolak emaitzak biltzeko moduaren arabera kirol talde ezberdinetan banatzen dira. Batetik, talde jokoak daude, futbola, eskubaloia edo saskibaloia bezalakoak, emaitzak biltzeko moduari dagokionez nahiko funtzionamendu antzekoa baitute. Bestetik, erlojupeko kirolak daude, esaterako, txirrindularitza edo maratoiak. Azkenik, beste kirol batzuetan lortutako puntuen arabera egiten da sailkapena, adibidez, arku-tiroan. Hiru modalitate horien artean nik denborazko kirolekin lan egin ohi dut.

Nolakoa da Olinpiar Jokoen antolaketan lan egitea?
Normalean urrutitik lan egiten duzu, beraz, herrialde batetik bestera dagoen ordu-aldea kontutan izan behar duzu. Adibidez, aurretik Tokioko jendearekin lan egin behar izan nuen eta orain Pekineko lankideekin harremanetan egon naiz. Horregatik, posta elektronikoko mezuak izan ohi dira gure lantresna nagusia, deika ibili edo bilerak egin ordez, posta-elektronikoak aukera gehiago ematen duelako bakoitzari zereginak bere ordutegira egokitzeko.

Pandemia testuinguruan Olinpiada antolatzea konplexua da?
Bai, azken bi urteetan egindako lana ez da batere erraza izan. Tokioko Olinpiar Jokoak bertan behera geratu zirenean dena hankaz gora jarri zitzaigun. Hasiera batean ez zegoen batere argi jokoak noiz eta nola egin ahalko ziren. Azkenean Olinpiar Jokoak atzeratzea erabaki zen. Izan ere, Asian eta Europan pandemiaren kudeaketa oso ezberdina izan da eta horrek kirol ekitaldiaren antolaketan eragina izan du. Asian intzidentzia tasa zero kasuetaraino jaistea izan da helburua. Europan, berriz, intzidentzia ahal bezain beste jaisteko ahalegina egin da, baina 0 kasuetara iristea bilatu ordez, birusarekin bizitzea bilatu da. Tokioko jokoak atzeratu zirenez, azkenean Udako zein Neguko proiektuak ia batera landu behar izatea gertatu zaigu. Beraz, eromena izan bada ere, lana aurrera ateratzea lortu dugu.

Lau urte denbora nahikoa da Olinpiar Joko batzuk zerotik prestatzeko?
Bai. Lana antolatzeko zereginak fase desberdinetan banatzen ditugu. Beraz, beti dago zereginen bat, baina, noski, Olinpiar Jokoen data hurbildu ahala, badira lan gehiagoko edo gutxiagoko aldiak. Hortaz, ezarritako helburuak lortzeko ahalegin etengabean bizi gara, beste edozein langile bezala. Kostata, baina azkenean beti lortzen dugu.

Jarraipen mediatiko handiko ekitaldia izanda, presio gehiagorekin lan egiten da?
Bai, normala den bezala. Jende askok ikusten eta jarraitzen duen ekitaldia dela badakizu eta akats bat eginez gero, probak zuzenean emititzen direnez, badakizu mundu osoan zabalduko dela.

Kulturari edo hizkuntzari dagokionez, kosta egiten al zaizu beste herrialde batera egokitzea?
Egokitzapen prozesuaren barnean, esango nuke ordutegi aldaketa eta "jet lag"-a direla okerrenak. Era berean, egia da txinatar kulturak eta hemengoak ez duela ia zerikusirik. Tokiokoarekin alderatuta ere aldaketa nahiko handia izan zen. Hurrengo Olinpiar Jokoak Parisen egingo direnez, suposatzen dut kasu horretan talka kulturala ez dela hain handia izango. Azken batean, beste herrialde batera bazoaz ere, zure helburua lan egitea da eta ahalik eta hoberen egiten saiatu behar zara, ez dago besterik.

Negukoak amaituta, jada datozen olinpiar jokoak prestatzen hasi zarete?
Pekinekoak amaitu ostean oporrak hartuko ditut. Maiatza edo ekaina aldera, berriz, datozen joko olinpikoak prestatzen hasiko garela uste dugu. Jada Pariseko Olinpiar Jokoei buruzko bilera bat izan nuen, beraz proiektua martxan dago jada.

Javi Aguirre, magoa:

"Zalantzarik gabe, magia eta musika oso lagun onak dira eszenan"

Javi Aguirre magoa magia trikimailuak egiten ari da 5 urte zituenetik. Magiaren inguruko prestakuntza zabaldu ahal izateko, Koreara joan zen manipulazioaren espezializazioan trebatzeko. Orain bere bi pasioak, magia eta musika, uztartzea erabaki du ikuskizun bakarra sortzeko.

Noiz hasi zitzaizun magia gustatzen?
5 urterekin magia trikimailuak egiten hasi nintzen. Ez dut oso ondo gogoratzen zerk erakarri ninduen magiara, baina uste dut inbidiak zerikusia izan zuela. Nire anaiak magia kaxa bat zeukan eta nik ere horrelako bat nahi nuen, orduan uste dut horrekin zerikusia duela. Horren ostean, "Nada por aquí" bezalako magia-programak ikusten hasi nintzen, non magoek magia trikimailuak egiten zituzten. Programa horiek nire jakin-mina areagotu zuten, ez bainuen ulertzen nola gertatzen ziren gauzak. Jakin-minak bultzatuta, trikimailuak nola egiten ziren ikertzen hasi nintzen, eta pixkanaka ikasten joan nintzen, harik eta magia pixka bat banekiela eta nik ere trikimailuak egin nitzakeela konturatu nintzen arte.

Zer magia mota praktikatzea gustatzen zaizu?
Denetarik egin dut. Magia mota desberdinak bereizten dira, horien artean hurbileko magia. Hurbileko ikuskizunetan zure mahaia daukazu eta jende talde txiki bat hurbiltzen zaizu. Koktel magian mahaiz mahai ibiltzen zara magia trikimailuak egiten. Areto edo eszenako magia publiko zabalago batentzat pentsatuta dago. Txiki-txikitatik hasi nintzenez, magia mota desberdinak probatzeko aukera izan dut. Eszena magiaren barruan, manipulazioa izeneko adar bat dago, eta horretan espezializatu naiz gehien. Magia mota hau ikasteko Korean egon nintzen eta gehien gustatzen zaidana da, oso bisuala baita.

Jende askok uste bezala, magia haurrentzako da bakarrik?
Bai, nik helduentzako magia egiten dut gehien, oraindik ere denok barruan dugun haurrarentzat pentsatuta baitago. Helduek pertsona serio gisa agertu behar dutela suposatzen den gizarte batean bizi gara, eta magiak horren aurka egiten du. Magiak harritu egiten gaitu eta horrek ilusioa eta egonezina berreskuratzen laguntzen digu. Beraz, haurtzarora itzultzeko modu bat da.

Non lortzen ditu mago batek behar dituen ezagutza guztiak?
Ez da erraza magia ikastea, inork ez baitizu esaten zehazki nola egin behar den. Lehenik eta behin, Youtube bezalako kanaletan magoak eta trikimailuak bilatzen hasten zara. Hori hasieran bakarrik gertatzen da, berehala konturatzen zarelako eduki onena magia liburuetan edo zuzenean erakuts diezazuketen magoetan dagoela.

Noizbait trikimailurik gabe geratu zara edo beti dago ikasteko gauza berririk?
Bai, gerta daiteke. Agian zuk ikuskizun bat prestatzen duzu, eta amaituta izan arren, gerta daiteke bi aldiz leku berean kontratatzea eta ikuskizuna aldatu behar izatea. Kasu horretan, trikimailuak bilatu eta gauza berriak ateratzen saiatu behar duzu. Zentzu horretan, trikimailu asko eta asko daude beti ikasteko.

Magia musikarekin uztartzen duzu?
Nik Irungo kontserbatorioan musika ikasi nuen. Oinarrizko zikloa eta erdi mailako zikloa egin nituen, eta musikaz inguratuta hazi nintzen. Logikoa da magia eta musika eginez biak konbinatzea, eta horretan ari naiz oraintxe bertan.

Erraza al da magia musikarekin konbinatzea?
Bai, oso ondo funtzionatzen dute elkarrekin. Magiak duen gauza ona erritmoa markatzeko balio duela da, beraz, ikuskizuna gidatzeko erabil dezakezu magia. Horrek ikusleari hasieratik bukaerara interesatzen laguntzen dio. Magia erabiltzen baduzu eta musikaren zerbitzura jartzen baduzu, edo alderantziz, emozio handiagoa sortzen da. Zalantzarik gabe, magia eta musika oso lagun onak dira eszenan.

Magia lehiaketek zure lana ezagutarazteko aukera ematen dizute?
Korean manipulazioa ikasten aritu ostean, Bartzelonan egiten den Magicus txapelketara aurkeztea erabaki nuen. Lehen saritua izateko zortea izan nuen. Hau izan zen nire lehen lehiaketa eta lehiaketa gehiagotara aurkeztea erabaki dut.

Nola eragin die pandemiak magoei?
Egia da niri pandemiak ez didala gehiegi eragin, baina bai nire kideei eragin diela gehien. Ni geldialdi batean harrapatu ninduen, une hartan Korean ikasten ari bainintzen, eta, beraz, ez nuen hainbeste emanaldirik. Egia da mago askori momentu txarrean harrapatu diela eta, beraz, beren burua berrasmatu behar izan dutela eta asko online ikuskizunak eskaintzen hasi direla.

Gogaikarria izan daiteke jendeak etengabe magia trikimailuak eskatzea?
Horretan arrazoi osoa duzu. Egia da logikoa iruditzen zaidala eta ulertzen dudala. Baina egia da egoera jakin batzuetan nik jada ikasi dudala ezetz esaten. Gakoa da modu egokian azaltzea eta beste une egokiago batean trikimailua egiteko eskaintzea. Ez zait asko axola, naturala iruditzen zaidalako.

Posible da magiaz bizitzea?
Bai, jakina posible dela, gauza guztiekin gertatzen den bezala. Nire ustez, modu egokian mugitzen jakin behar da, eta benetan magian aritu nahi baduzu, ezagutza magikoak izateaz gain, oso garrantzitsua da zeure burua nola saldu behar duzun jakitea. Horretarako, ekitaldi enpresetan zure lana ezagutarazteko ardura duen jendearekin edo managerrarekin harremanetan jarri behar zara.

Zer proiektu berri dituzu buruan 2022rako?
Ba oraintxe bertan "Magia eta Musika" izeneko ikuskizuna prestatu dut, marka pertsonaltzat har daitekeena. Musika konposatzean eta magia egitean biak uztartzea erabaki dut. Apirilean Donostian aritu nintzen La Farandulan eta ikuskizun horren barruan magia eta musika uztartuko ditut neure ikuskizun propio bat egiteko.

Ander Gamón, 2021eko zirkuituetako erabateko txapelduna turismoetan Aragonen, Valentzian eta Nafarroan

“Autora igotzen zaren bakoitzean zerbait berria ikasten duzu”

Ander Gamónek Aragoiko Abiadura Txapelketa irabazi du. Txapelketa irabazteaz gain, Gamónek ere garaipena lortu du bere kategorian. Azken urteetan bere aitarekin batera prestatu duen Mercedes AMG autoari esker lortu du garaipena. Pilotu irundarrak aurreratu duenez, datorren denboraldian auto berarekin lehiatuko da, baina etorkizunari begira asmo handiagoko proiektuak ditu.

Nondik eta noiztik datorkizu zaletasun hau motorraren munduarekiko?
Txiki-txikia naizenetik bizitu dut afizio hau, aitari esker. Kartingean hasi nintzen eta hortik aurrera pilotu gisa garatu naiz. 2011n monoplazetara pasatzea erabaki nuen, baina 2013an turismorako jauzia egitea erabaki nuen, monoplazetan F3ra iristea ezinezkoa bihurtzen delako, kostuak oso handiak baitira. 2013an Seat Leon Super Kopa batekin korritu nuen. Gero Peugueot 207 Spider barketa-turismoarekin ibili nintzen eta txapelketako bigarrena bukatzea lortu nuen. Ostean, BMW batera pasa nintzen, baina autoa nola zebilen gustatzen ez zitzaidanez, orain 30 urte dituen Mercedes bat eraikitzen hasi ginen. 2015. urtearen amaieran hasi ginen autoa prestatzen, eta 2017an atera genuen pistara. Pixkanaka hobetu dugu, eta ezustekoa izan da aurten lortu dudan guztia lortzea.

Nola lortu duzu abiadurako txapeldun izatea Aragoiko txapelketan?
Iraunkortasunari esker lortu dut garaipena. Hainbat zirkuitutan ibili naiz, hala nola Rikardo Tormo, Motorland, Los Arcos edo Bartzelonako Zirkuitua. Munduko txapelketako zirkuituak izan dira, eta, beraz, oso beharrezkoa izan da haietan lehiatzeko iraunkortasuna eta prestakuntza. Etxean gimnasioko orduak sartuz ere prestatu behar izan dut neure burua, ibilgailua behar bezala gidatzeko besoetan, lepoan eta bularrean indarra izan behar baita. Eskuzko autoa denez eta enbragea duenez, etengabe aldatu behar da.

Pilotuoi pandemiak nolabait eragin al dizue?
Bai. Txapelketaren hasieran ez zegoen batere argi harmailetan afizioa egon ahalko ote zen. Azkenik, urteak aurrera egin ahala, nire garaipenak lagunekin batera gozatu ahal izan ditut. Autoa aitak egin du, DCM Motor Sporten eta lagun askoren laguntzarekin, eta txapelketa ez dut nik bakarrik irabazi, guztion garaipena izan da. Zorionez, nire ondoan jende asko daukat ni animatzen, eta oso eskertuta nago. Mentalki oso urte gogorra izan da, txapelketaren hasieran sailkapenaren erdian ikusten bainintzen. Valentzian, adibidez, lehian aritu ginen 50 autoen artean lehen 10 autoen artean sailkatzea lortu nuen. Konturatu gabe, sailkapen absolutuko lehen hiruen artean sailkatu nintzen, hiru probaren faltan. Azkenean lehia gogorra izan da eta zail jarri didate, azken itzulira arte maila handia baitago.

Zerk bereizten du pilotu on bat?
Aurkariek hobetzen laguntzen dizute. Nireetan ez ezik, aurkarien hutsegiteetan ere arreta handia jartzen dut, horrela ikasten baita. Autora igotzen zaren bakoitzean zerbait berria ikasten duzu. 2022an auto berarekin jarraituko dut eta titulua defendatzeko goian jarraitzea gustatuko litzaidake.

Bereziagoa al da zuk prestatutako autoa gidatzea?
Bai, auto berezia da, ordu asko eman baitira prestaketan. Txapelketa irabaztean denboraldian zehar jasandako guztia gogoratu dut. Gurasoen, arrebaren, familiaren eta lagunen laguntzari esker, pixka bat gehiago estutu dut behar izan dudanean, eta, azkenean, emaitza onak lortu ditut. Ikasi dut oso garrantzitsua dela gauzei denbora ematea eta pazientzia izatea.

Ez da afizio merkea. Nola finantzatzen duzu?
Garrantzitsuena gogor lan egitea da. Autoa prestatzen laguntzen didaten babesleak ere baditut, dirurik ematen ez didaten arren. Adibidez, nire aitaren enpresa, Autodesguaces Txingudi, gurpilen eta inskripzioen gastuaren zati bat estaltzeaz arduratzen da. Pneumatiko bakoitzak 400 euro inguru balio du, eta lasterketa bakoitzean ezinbestekoa da joko berri bat jartzea, bestela maila altuan lehiatzea ezinezkoa baita.

Nola laburbilduko zenuke 2021eko denboraldia?
2022an txapelketa berean lehiatuko naiz. Aurreko urtean guztira 10 proba egin ziren. Harritu egin nau beste urte batzuetan 20 auto bakarrik lehiatzeak eta aurten 50 izatera iritsi ginela. Denboraldia oso dibertigarria izan zen, lasterketa berean pilotuen posizioak asko aldatzen baitziren. Niri lasterketetan pilotu asko izatea gustatzen zait, horrela zailagoa baita lehenengoen artean sailkatzea. Gainera, baldintza berdinetan edo antzekoetan lehiatzea gustatzen zait, horrela zailagoa baita nabarmentzea.

Zeintzuk dira etorkizunerako zure helburu handinahienak?
Datorren urtean auto berarekin lehiatuko naiz. 2023ra begira, pauso handiagoa ematea gustatuko litzaidake, autoz aldatzea gustatuko litzaidake. Oraindik ez dakigu Mercedesetik zeinetara joango garen, horretan ari gara lanean, baina lehenik eta behin hurrengo denboraldian jarri behar dugu arreta. Zaila izango da, baina berriro txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake. Aurten denboraldi amaiera oso ona egin dut eta horrek asko lagundu dit. Azken lasterketan kolpe bat izan nuen lehiaren hasieran, eta horrek zaildu egin zidan proba. Baina, zorionez, eguraldiak asko lagundu zidan, euria hasi baitzuen. Eguneko sailkapen orokorrean laugarren izan nintzen, nire arerio zuzenena atzean utzita, eta horrela lortu nuen zirkuituetako turismo txapelketa absolutua irabaztea, baita nire kategoriako garaipena ere. Guztira 6 titulu lortu ditut aurten, nire ustez guztiak merezitakoak.

Jada ez dago emakumeei korrika egitea galarazten dien aitzakiarik

Ane Bayo irundarrak emakumeak korrika egitera animatzeko proiektua garatu du. JFKZ/IVEF ikasketak amaitu ostean, Emeki elkartearen laguntzarekin, eskualdean aurrekaririk ez duen ideia bat gauzatzea lortu du. Asmoa maila desberdinetako taldeak sortzea da, emakumeek lotsa gal dezaten eta runinga bezalako kirol baten praktika egokiaz goza dezaten. Egitasmoan izena eman nahi dutenek Ane Bayorekin harremanetan jarri beharko dute anebasan97@gmail.com helbidera idatzi edo 628181977 telefono-zenbakira deituz.

Zein da eskuartean duzun proiektua?
Ni Ane Bayo naiz eta IVEF Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua ikasi nituen Gasteizen. Prestatu dudan proiektua emakumeentzat pentsatuta dago eta emakumeei runningaren hastapenean laguntzea da asmoa. Emeki elkartearen bidez hasi nintzen proiektua pentsatzen eta garatzen. Oraindik proiektua ezagutarazi eta aurrera ateratzeko momentua iritsi da eta proiektuan izena eman duten emakumeekin running taldeak sortzen hasiko gara.

Zure ikasketak praktikan jartzeko aukera emango dizu proiektuak?
Bai, lau urtez IVEF ikasketak egin bitartean, Gasteizeko running taldeetan parte hartzeko aprobetxatu nuen. Etxera itzultzerakoan hemen inguruan horrelako talderik ez dagoela ikusi nuen, ez baitago emakumeentzako running talderik. Nik neuk ere korrika egitera atera nahi nuenean, horretarako pertsonarik ezagutzen ez nuela ikusi nuen. Beraz, horrelako zerbait sortzeko aukera ikusi nuen eta proiektua garatzeko erabakia hartu nuen.

Nola gauzatuko duzu proiektua?
Proiektuaren ideia nagusia da inoiz korrika egin ez duten emakumeei kirol hau probatzen laguntzea, ohitura hori hartu dezaten. Bestetik, korrika egitera bakarrik atera nahi ez duten emakumeak edo korrika egiteko behar bezala prestatzen ez dakiten emakumeei lagundu nahi diet. Horrela, taldea sortu eta elkarrekin hobetzen joatea proposatu nahi diet. Hasierako taldeko entrenamenduak astelehen eta asteazkenetan izango dira 18:00etatik 19:00etara. Talde aurreratuak egun berean entrenatuko du, baina 19:15etatik 20:15etara.

Zelako harrera egin zizuten Emeki elkartean proiektua aurkeztu zenienean?
Proiektua azaldu nienean esan zidaten antzeko zerbait martxan jartzeko asmoa zutela. Emeki elkartetik proiektua burutu ahal izateko lagundu zidaten eta uneoro haien laguntza izan dut egitasmoa aurrera eramateko. Urtarrilaren 10ean hasi ginen eta Emeki zein ni oso motibatuta gaude egitasmoa martxan jarri ahal izateagatik.

Entrenamenduak prestatu ahal izateko lan handia egin duzu?
Bai, erraza da pentsatzea korrika egiteko kalera ateratzearekin nahikoa dela, baina atzetik prestaketa bat dago. Nik makrozikloak zein mikrozikloak prestatzen ditu, izan ere, nire nahia entrenamendu aniztasuna eskaintzea da. Korrika egiteaz gain, indar ariketak, ariketa teknikoak, serieak edo eskailerak egin nahi ditut parte-hartzaileekin. Ariketa asko eta asko daude eta horiek guztiak lantzea eta aurretiaz prestatzea beharrezkoa da. Oraintxe bertan horien lanketan zentratuta nago.

Maila desberdinetako taldeak sortuko dituzu. Zenbat talde izango dira guztira?
Oraingoz korrikalariak bi taldetan banatzea erabaki dut. Batetik, inoiz korrika egin ez duten emakumeak daude eta, bestetik, noizbait korrika egin dutenak edo behintzat kirolen bat egiteko ohitura dutenak. Behin emakumeak lehenengo taldera egokitzen direnean, talde aurreratura pasatzeko ideia dut. Beraz, momentuz bi talde izango dira eta aurten jende askok izena ematen duela ikusten badugu, hirugarren talde bat osatuko genuke.

Jendeak proiektuarekiko interesa erakutsi du?
Emakume dexente jada egitasmora batu dira. Izen-ematea doakoa da eta Facebook zein Instagram sare sozialen bitartez zabaldu dugu deialdia. Izen-ematea egin duten emakumeak jada nirekin korrika egiten hasi dira.

Korrika egiteko orduan gizonen eta emakumeen artean alde handia dago?
Egia da emakumezkoen eta gizonezkoen artean fisiologikoki desberdintasunak daudela. Dena den, egitasmo honen bitartez nire helburua emakumeak kirolaren praktikan eroso sentitzea da. Taldeak sortu nahi ditut emakumeek lagun giroan kirola egiteko aukera izan dezaten. Horrela, emakumeek beren denbora librean korrika egitera ateratzeko aitzakiarik ez dute izango.

Korrikalariez gainera, proiektu honen bitartez zuk zeuk ere gauza berriak ikasteko aukera izango duzu?
Hori da. Uste dut egunero nik neuk emakume hauengandik zerbait berria ikasteko aukera izango dudala. Azken batean, jende askorekin harremana duzunean edo jende berria ezagutzen duzunean beti ikasten duzu zerbait.

Zer eskatzen diozu proiektu honi?
Proiektu honen bitartez etxean ezer egin gabe dauden emakumeak kalera ateratzera eta kirola egitera gonbidatu nahi ditut. Horrela, emakumeek beren buruari denbora gehiago eskaintzeko modu bat izango da. Izan ere, batzuetan, konturatu gabe ez diogu gure buruari behar beste denbora eskaintzen. Kirolaren praktikak harreman zuzena du osasunarekin eta oso garrantzitsua da kirola egitea. Lotsak ez du izan behar emakumeak etxean kirola egin gabe gerazeko arrazoi bat, hemendik aurrera taldean korrika egin ahal izateko aukera baitute.

Izurrite Antoninotarra: Inperio Erromatarra astindu zuen pandemia

Irudia 1: coin | British Museum. Izenburua: Marko Aurelioren txanpona, atzealdean Salus jainkoaren irudikapenarekin. Iturria: British Museoa.

Irudia 2: File:The angel of death striking a door during the plague of Rome Wellcome V0010664.jpg - Wikimedia Commons. Izenburua: The angel of death striking a door during the plague of Rome. Engraving by J.G. Levasseur after J. Delaunay (1879)

Izurrite Antoninotarra K.o. 164-165. urtetik aurrera ekialdetik Inperio Erromatar osora zabaldu eta bertako biztanleriaren zati garrantzitsu bat hil zuen pandemiari deritzo. Dinastia antoninotarreko kide ziren Marko Aurelio eta Luzio Vero enperadoreen agintaldian agertu izanaren ondorioz hartzen du "Antoninotar" izena gaixotasun honek.

Gaitzaren agerpena Luzio Vero ekialdean partiarren kontra borrokan zebilela suertatu zen erromatarren artean. Enperadorearen armadako legionario ugari gaixotu ziren kanpaina militar hartan eta egunez egun kutsatzeak gora zihoazela ikusirik, Verok erretiratzeko erabakia hartu zuen Erromara bueltatuz bere gizonekin, beraiekin pandemia mendebaldera eraman zuela konturatu gabe. Urte haietan Inperio Erromatarrak loraldi garai bat bizi zuen, egonkortasun politiko eta ekonomikoa ziren nagusi eta erromatar bizi estiloa eta kulturaren zabalpena geldiezinak ziren bere lurretan. Mundu erromatarra Mesopotamiatik ozeano Atlantikora eta Sahara iparraldetik Rhin eta Danubioren ibaiertzetara eta Hadrianoren harresira zabaltzen zen eta erabat elkarloturik zegoen galtzada, ibai eta itsasbide ugariren bitartez. Komunikabide sare honek gaixotasunaren mugikortasuna erraztu zuen, hiriguneak izanik kaltetuenak, Erroma hiria bereziki. Galeno sendagilearen idatziek informazio dezente eskaintzen digute Izurrite Antoninotarraren inguruan. Galeno, jatorri greziarrekoa bera, Marko Aurelio eta Komodo enperadoreen mediku eta zirujau pertsonala izan zen eta gaixotasuna iristean Erromatik landa mundura ihes egin behar izan zuen kutsatuko zelakoaren beldurrez. Bere Methodus Medendi lanean gaitzaren zenbait sintoma aipatzen ditu: begi haziak, eztula, egarria, goragalea, sukarra, ondoeza, eztarri narritatua, nekea eta negelak larruazalean, esate baterako. Datu bakar hauekin zaila bada ere pandemia sortu zuen patogenoa identifikatzea, gaur egun iritzi zabalduenek gaitz antoninotarra elgorria edo baztanga izan zitekeela diote.

Behin izurria zabalduta, erromatarrak ez ziren gai izan infekzioari aurre egin ahal izan zion tratamendu medikurik aurkitzeko. Hori dela eta, ihesa eta isolamendu boluntarioa izan ziren irtenbide ohikoenetako batzuk. Hildakoen kopuru handia zela eta, askok, enperadoreak berak kasu, orakulu eta jainkoei laguntza eskatzen zieten hainbat erritualen bitartez, sakrifizio eta otoruntza erlijiosoak tarteko. Desesperazio horren adibide ere ditugu Luzio Vero eta Marko Aurelioren txanpon ugaritan ohikoak diren Salus, Asklepio eta Apolo jainko sendagileen irudikapenak. Testuinguru honetan, ez ziren falta izan munduaren amaiera predikatzen zuten berritsuak eta jendearen atsekabea ustezko objektu babesle eta sendabide miragarriak saltzeko probestu zutenak. Egoera ez zen gutxiagorako ere, gaixotasunak zahar eta gazte, aberats eta pobreak eraman zituen aurretik. Batzuen ustetan, Luzio Verok eta Marko Aureliok gaitz honek jota galdu zuten bizia. Dena den, zenbait kolektibo izan ziren izurria bereziki sufritu zutenak beren elikadura xumeagatik eta egunerokoan pairatu behar zituzten bizi baldintza txarrengatik, hauen artean izanen genituzke esklaboak eta familia txiroenak. Soldaduen artean ere kutsatze tasa oso altuak bizi izan ziren eta zenbait lekutan hiritarrek kristauen kontra jo zuten katastrofearen errudun ikusten zituztelako. Pandemiaren iraupenaren inguruan, badirudi lehendabiziko olatuak 4-5 urte iraun zuela, berriz ere 180an agertzeko eta indar handiagoz hamar urte geroago. Azken olatuan, honen testigu izan zen Dion Kasio senatariaren arabera, Erroman bi mila bat hildako zeuden egunean. Dena den, ez da ziurra aipaturiko azken bi olatu aldiak gaixotasun berberak sorrarazi ote zituen.

Egun oraindik Izurrite Antoninotarrak erromatar munduan izan zuen inpaktuaren inguruko eztabaida zabalik dago. Tradizionalki K.o. III. mendeko krisi politiko eta ekonomikoaren sortzaile nagusienetakotzat jo izan da, baina ez dago adostasunik baieztapen honen inguruan. Demografiaren ikuspegitik, estimazioen arabera inperioko biztanleriaren % 7-10ak galdu zuen bizia eta legionarioen artean jasan zen hilkortasun maila handia zela-eta, armadarako barbaroen erreklutamenduak nabarmenki gora egin zuela uste da. Argi dagoena da, pandemiak sekulako kolpe psikologiko, sozial, ekonomiko eta politikoa suposatu zuela, mugarri bat gehiago Inperio Erromatarraren ibilbide historikoan.

Oiasso Museoan Antzinatean bizi izandako pandemien inguruko erakusketatxo bat dugu ikusgai, beraz, gehiago jakiteko gogoekin gelditu bazara badakizu zer egin!

Jokin Lanz

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kalelo 30, zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

SAN VICENTE DE PAUL LH2

DENBORA-PASAK

7 hitz: Eskiatzen

M	V	V	N	Q	E	L	U	R	T	E	K	C	S
M	A	L	U	T	A	R	M	A	J	P	H	V	S
F	K	K	E	N	V	M	L	R	O	N	A	T	R
G	A	R	S	P	I	S	T	A	R	G	J	M	Y
M	N	C	S	Q	U	D	J	D	D	I	W	X	Q
A	O	H	Z	Q	F	Q	B	H	R	W	J	P	V
K	I	F	B	S	S	S	O	X	K	K	U	M	J
I	K	T	A	B	S	E	Z	B	D	V	F	I	M
L	A	Y	F	O	L	S	O	W	D	J	G	P	T
A	S	E	G	E	T	K	B	K	E	M	U	L	U
O	K	O	W	F	N	I	E	L	V	Z	K	O	Y
L	O	S	D	T	W	A	V	E	M	E	O	A	P
F	B	B	B	M	O	K	Z	J	J	C	P	U	B
Z	X	P	Z	V	M	D	W	K	X	O	T	T	Z

Elurte, makila, eskiak, pista, kasko, kanoi, maluta.

				3			7	
8	3		7			4		
		9				2		6
				2		3		5
			5	6		7	4	
5		4	8			6		2
	2							3
6		5		7	8			4
	4				6			

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Fernando plazan

Egun batian juantzen Fernando plazara bi asto itsuakin, saltzera.
Eta esantzion erostunak:
– Asto ederrak dire?
Eta esantzion Fernandok:
– Bai, oso onak dire baño gaitz bat dute: alkar ezin dire ikusi.
Esantzuen erostunak:
– Orregatik eztu inporta. Jarriko ditut bi ikullutan.
Eta erostunak erosi zuen eta itxera juantzen. Eta astoak ezintziren kanpora juan. Eta berriz emantzittun plazara.

Hondarribiko Portuko J.J.A., 12 urteko haurrak kontatua (1959-XI-16). "Amari arittua".

(El Bidasoa, 1960-II-13)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

TOKI ALAI DBH1

Bazen behin, neskato bat Ana izenekoa. Mondragoneko neskarik ederrena zen. Bere amarekin eta anaia gazteenarekin bizi zen. Aita, berriz, ez zen beraiekin bizi, aita zalduna baitzen eta beti zebilen abenturak bizitzen Mondragonetik hurrun. Anak aita bezalakoa izan nahi zuen: zaldun bat. Zaldun bat mundua ikusteko, mundua ezagutzeko, mundua ulertzeko… baina ezin zuen, neska baitzen eta gizonak bakarrik izan ahal ziren zaldunak. Ustez. Uste okerrean.

Egun batean, ordea, dena aldatu zen. Anak, herritik paseatzen ari zela, jendea korrika ikusi zuen. Momentu hartan, gizon batekin talka egin zuen:

-Eh! Zergatik ari zarete korrika? -galdetu zuen Anak.

-Utzi bakean! Dragoia hortxe da. Bertan da!

-Dragoi bat? Mondragonen? Burutik jota al zaudete?

Gizonak ez zion kasurik egin eta korrika, ihesi, jarraitu zuen.

-Dragoia, eh? -esan zuen.- Eta bisita bat egiten badiot? Etxera joan zen eta, inortxok ere ikusi gabe, aitaren ezpata zaharra hartu, eta dagoiaren bila abiatu zen. Handik gutxira, herritik kanpo zegoen. Erabaki irmoa zuen: dragoiaren bila joango zen. Gizonak esan zion bezala, dragoia Mondragoneko mendietan zegoen, eta hara abiatu zen.

Egunak eta egunak ibili zen, ea zerbait aurkitzen zuen: hortz edo dragoiaren aztarnaren bat, gorotzen arrastoren bat... baina ezer ere ez, ez zuen ezertxo ere aurkitu. Bat-batean, izugarrizko orroa entzun zen. Zalantza izpirik ez zegoen: dragoia hurbil zebilen. Piska bat ibili eta gero, kobazulo bat aurkitu zuen eta barruan sartu zen. Beste orro bat entzun zen; oraingoan, askoz ere beldurgarriagoa.

Kobazuloaren barruan zebilela, haize-zirimola beroa nabaritu zuen aurpegian eta gora begiratu zuen. Han zegoen, eserita, Mondragoneko dragoia!!! Anak ez zekien zer egin, eta geldirik geratu zen, zirkinik ere egin gabe. Dragoiak, berriz, orro egin zuen eta neska lurrera erori zen. Ezpata ere erori zitzaion, baina ez zegoen astirik horretan pentsatzeko, dragoiak kiskali egingo zuen.

-Hilko zaitut eta hoberena izango naiz. Ikusiko duzu! -esan zuen neskak.

Mugimendu azkar batez, dragoiaren sua saihestu zuen eta ezpata hartu zuen.

-Orain zer, dragoi? -Dragoia neska zapaltzen saiatu zen baina honek berriro saihestu zuen. Orduan, dragoiak ahoa ireki zuen eta Anak ezpata ahoan iltzatzeko aprobetxatu zuen. Alboetara begiratu zuen, ezkutatzeko leku bat bilatzen zuen bitartean, eta aurkitu zuen. Zulotxo batean sartu zen eta ikusi zituen dragoi txikiak, habi baten barruan.

-Oh! -esan zuen Anak.

Sartu zen zulotxotik begiratu zuen eta ikusi zuena ez zitzaion batere gustatu. Dragoi ama ezpata ahotik kentzen saiatzen ari zen. Momentu horretan, dragoitxoak negarrez hasi ziren. Ana, azkar batean, zulotxotik atera zen.

-Zaude! -Dragoia geldirik geratu zen.

-Dragoitxoak ondo daude… -Arnasa hartu zuen.

-Badakit ez naizela ondo portatu zurekin. -Zulotxora begiratu zuen.

-Orain badakit zergatik zauden horrela. Utzi…

Anak haren eskua dragoiaren ahora hurbildu zuen. Baina dragoiak, beldurraren beldurrez, ez zion utzi.

-Lasai -esan zuen Anak, irribarre batekin.Begiak itxi eta bere eskuineko eskua dragoiaren buruan jarri zuen, eta beste eskuarekin, ezpata ahotik kendu zion.

-Denei esango diet hilda zaudela. Denek zu bakean uzteko, eta zu lasai bizitzeko. -Behera begiratu zuen.

-Zaldun batek hil zaituela esango dut. Ez dute sinetsiko emakume batek dragoi bat hil duenik.

Mondragonerako bidea hartu zuen; baina, orduan, dragoiak hortz bat kendu zuen eta Anari eman zion: dragoia "hil" zuelako froga izango zen.

-Eskerrik asko dragoi!

Korrika berarengana hurbildu, eta burua laztandu zion.

Lucía Valdés, DBH 1D

Ainara Rodriguez "Laina", rap abeslaria:

"Ez dut nire sentitzen ez dudan zerbait idatziko"

Ainara Rodriguez "Laina" goitizenaz da ezagunagoa raparen munduan. Gazteartean Festaren barruan 2021eko urrian bere lehen kontzertua eskaini zuen eta "96 grados" izenpean bere lehen diskoa kaleratzea lortu du jada. Lainak berarentzat rapak zer esan nahi duen eta abestien sormen prozesua nolakoa den azaldu du.

Noiz egin zenituen musikaren munduan lehen urratsak?
Ni, egia esan, idazten hasi nintzen, literaturaren eta poesiaren mundua asko gustatzen zitzaidalako. 13 urte ditudanetik nik entzun dudan musika rapa izan da, orduan beti izan dut musika estilo horren eragina. Raparen bidez nire poesiak zabaltzeko modua aurkitu nuen. Proba txikiren bat egiten hasi nintzen, eta gero gauza serioagoak lortzen joan nintzen.

Rapaz gain, beste musika estilorik probatu duzu?
Ez, ez dut beste musika estilorik probatu. Beste musika estilo batzuk abestu ahal izateko beharrezkoa da bestelako ahotsa izatea edo musika ezagutza handiagoa izatea. Azken batean, rapa izan denez urte askoan entzun dudan musika, beti izan da landu nahi izan dudan generoa.

Raparen barruan desberdintasun asko al daude gizonek eta emakumeek izan ditzaketen arrakasta-aukeren artean?
Nik uste dut, gizartean oro har gertatzen den bezala, gaur egun oraindik ere emakume izatea zailtasun erantsia izan daitekeela lorpen handiak eskuratzeko. Duela urte batzuk egoera hori okerragoa zen oraindik, eta zailtasunak handiagoak ziren. Zorionez, gero eta emakume gehiago ausartzen gara rapeatzera eta gure artean asko laguntzen diogu elkarri. Egia da hainbat eragozpen daudela oraindik, eta oraindik ere errazagoa dela gizon izanda nabarmentzea, baina pixkanaka gauzak lortzen ari direla uste dut.

Nola lortu zenuen zure lehen diskoa ateratzeko aukera?
Gaur egun, oraindik ere flipatzen jarraitzen dut gertatutakoarekin. Nik duela hiru bat urte bideo bat bota nuen Twitterren rapeatzen, eta eragin handia izan zuen. Txikitatik jarraitzen diodan rapero bat nirekin harremanetan jarri zen eta ahal nuen guztian lagundu nahi zidala esan zidan. Horren ildotik, zenbait gai idatzi nituen, nahiz eta hasierako ideia abesti bat, single bat, ateratzea izan. Azkenean, Malagaraino joan nintzen, eta han ekoiztu genuen disko osoa eta grabatu genituen abestiak. Denbora luzez berarekin harremanetan egon ondoren, azkenean diskoa ateratzea lortu genuen.

Zer aurkituko dugu zure lehen diskoan?
Rapa nahiko gordina eta zuzena egiteagatik nabarmentzen naiz. Oso rap zintzoa da, baina letra handikoa. Ez dut melodia handirik edo oso abesti musikalik. Mezuak oso garrantzitsuak dira, nik sentitzen dudana eta kontatu nahi dudana erakusteko aukera ematen baitidate.

Erraza al da musikaren munduan lekua egitea?
Nire lehen abestia atera nuenetik esan dezaket erabat pozik nagoela, uste baitut nahi nuen guztia lortu dudala. Ez zait axola ikustaldi gehiago edo gutxiago eduki izana, niri benetan axola zitzaidana abesti hori atera ahal izatea zen. Hala ere, badirudi lehen gai hori uste baino oihartzun handiagoa izaten ari dela. Gaur egun edonork egin dezake musika, berdin du ona edo txarra zaren. Edonork musika sortzeko erraztasunak dituenez, nabarmentzea ia ezinezko bihurtu da.

Gazteartean Festean zure lehen kontzertua eskaini zenuen. Nolakoa izan zen esperientzia?
Nire bizitzan emandako lehen kontzertua izan zen. Aurreko astean erabat urduri egon nintzen, baina, hala ere, agertokira igo eta nire lagunak ikusi nituenean, urduritasun guztiak ahaztu zitzaizkidan. Kantatzeko gogoa izan zen une horretan sentitu nuen bakarra. Esperientzia bikaina izan zen.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak musikari dagokionez?
Lanean jarraitu nahi dut, baina inspirazioa behartu gabe. Ez dut esanahirik gabeko abestirik atera nahi, nik beti idazten baitut zerbait esateko beharrarekin. Oraintxe bertan abestiak idazten jarraitzen dut, baina ez asko, baina astiro eta maitasunez lantzen ari naiz. Oraingoz ez naiz disko baten ekoizpenean sartuko, baina asko gustatuko litzaidake kolaborazioak egitea.

Non aurkitzen dituzu zure abestiak idazteko ideiak?
Beti inspiratu izan naiz neure bizipenetan. Dela modu pertsonalean gertatu zaizkidan gauzetan, dela nire inguruko jendeari gertatutakoetan. Bidegabekeria sozialak salatzeko premia handia sentitzen dut. Ez dut gai bat aukeratzen horri buruz idazten hasteko, izan ere, ez dut nire sentitzen ez dudan zerbait idatziko.

Zure inguruko jendearengatik babestuta sentitu zara?
Bai, egia esan bai. Hasieran beldur nintzen familiak ez ote zidan lagunduko edo ez ote zitzaien gustatuko nik rapa egitea. Hala ere, nire jarraitzailerik handienak dira eta lagunekin gauza bera gertatu zait. Irungo eta inguruko jendearen babesa ere jaso dut, eta oso eskertuta nago horregatik.

Musikaz bizitzea gustatuko litzaizuke?
Bai noski, gustatuko litzaidake. Edozein artistari galdera hori egiten badiozu, baietz erantzungo luke. Kontua da oso zaila iruditzen zaidala. Zaila da arrakasta lortzea, eta uste dut goi-goian egon behar dela diru-sarrera horiekin bakarrik mantentzeko adina diru irabazteko. Ia ezinezkoa iruditzen zait, baina saiatu beharra dago.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Irungo Kiroldegietarako matrikula doan

Kirol Arloak jakinarazi duenez urtarrilaren 21era arte Irungo Kiroldegietan izena ematen dutenek ez dute matrikula ordaindu beharko. Eskaintza horri esker, matrikula ordaintzen duten abonamenduei dagokienez, adibidez, guraso abonatu bat duten haurrek 43,16 euro aurreztuko dituzte, eta helduek, 77,65 euro ere. Alegia, abonatu berriek beren abonamendu motari dagokion hiruhilekoko kuota bakarrik ordaindu beharko dute.

Irun Txartela
Altak udal webguneko egoitza elektronikoaren bidez tramitatu behar dira, Irun Txartela (B@KQ) erabiliz, eta titularrek beren izenean zein ordezkatzen dituzten pertsonen izenean har ditzakete.

Abonatu izatearen abantailen artean honako hauek aipatuko genituzke, ikastaroen izen ematean lehentasuna eta tokia denboraldiaren amaiera arte gordetzea, prezio murriztuak ikastaroetan eta fisioterapia zerbitzuan, elikapen zerbitzuan doako lehenengo kontsulta, asteko doako ordubete, frontoi, trinkete eta squashean, etab.

Gazte BizHitza

GazteBizHitza, Gazteentzako on-lineko orientazio eta aholkularitza zerbitzua da. Ikasketak, Lana edo Etxebizitzari buruz behar duzuna bilatu eta zalantzarik baduzu bidali whatsappa.

Telefono zenbakia: 646 10 91 26.

Gazte BizHitza

Ikasketa gelaren ordutegia

Azterketa garaia heltzear dela eta, 2021eko azaroaren 13tik 2022ko otsailaren 13ra bitartean "Carlos Blanco Aguinaga" Udal Liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du. Horrela, epe horretan ikasketa gela ondoko ordutegian egongo da irekia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara.

Larunbata: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Igandea: 9:00etatik 13:00etara.

Gainontzeko zerbitzuek ohiko ordutegia jarraituko dute.

DYAaren doako hitzaldiak

DYA Gipuzkoak hitzaldi/tailer ziklo bat prestatu dugu, egoera emozional disfuntzional desberdinak lantzeko eta horiei behar bezala aurre egiten irakasteko. Doako saioak izango dira, 3 orduko iraupena izango dute, 16:00etatik 19:00etara eta DYAko Boluntariotza eta Prestakuntza Gunean (Baratzategi, 10 behea) emango dira.

- **Urtarrilak 18:** Emozioak, zer diren eta krisiak eragindako aldaketa psikologikoak.

- **Otsailak 1:** Antsietateari aurre egiteko gakoak.

- **Otsailak 15:** Depresioa eta isolamendu soziala.

- **Otsailak 26:** Osasun psikologikoa eta bizitza emozional osasungarria izateko gakoak.

Izen-ematea: idatzi irakaskuntza.eskola@dyagipuzkoa.com helbidera edo deitu 943 46 46 22 telefono-zenbakira.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2022

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere. Esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte garatuko da. Programa honen helburua da Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioak sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea.

Zertan datza?
– Lankidetza-ekintzak Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan

– Lankidetza Euskadiko eta helmugako herrialdeetako Garapenerako GKEekin

– Hiru hilabeteko iraupena, uztailetik urrira

– Gastuak Eusko Jaurlaritzaren kontura

Bete beharreko baldintzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri bateko erroldan inskribatuta egotea.

- 1990 eta 2000 artean jaio izana, bi urte horiek barne.

- Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menperatzea.

Izena ematea: otsailaren 15era arte



Urtarrilak

20ra arte

Argazki erakusketa

Zer: Haurtzaroari begirada izeneko erakusketa ikusi ahalko da.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

21

Dokuirun

Zer: Maite Alberdiren "El agente topo" filma, Gurutz Albisuk gidatutako solasaldiarekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Iraupena: 84 minutu.

22

Pailazoak

Zer: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek "Kuikui" ikuskizuna eskainiko dute.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 15:30etan eta 18:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

27

Zure abenturaren bila

Zer: David Lopezek "El Chad" aurkeztuko du, Txad ipar-ekialdeko eskualde bati buruz hitz egiteko.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

29

Irun Zuzenean

Zer: Enrique Villarreal, "El Drogras" musikariaren kontzertua formatu akustikoan, abesti berriak eta bere ibilbide osoko klasikoak abestuko ditu.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

30

Antzerkia

Zer: Irungo Kanka Antzerki elkarteak "20 y tantos en cada pata" antzezlana eskainiko du bi paseetan.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan eta 20:00etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Denbora-pasen emaitzak

M	V	V	N	Q	E	L	U	R	T	E	K	C	S
M	A	L	U	T	A	R	M	A	J	P	H	V	S
F	K	K	E	N	V	M	L	R	O	N	A	T	R
G	A	R	S	P	I	S	T	A	R	G	J	M	Y
M	N	C	S	Q	U	D	J	D	D	I	W	X	Q
A	O	H	Z	Q	F	Q	B	H	R	W	J	P	V
K	I	F	B	S	S	S	O	X	K	K	U	M	J
I	K	T	A	B	S	E	Z	B	D	V	F	I	M
L	A	Y	F	O	L	S	O	W	D	J	G	P	T
A	S	E	G	E	T	K	B	K	E	M	U	L	U
O	K	O	W	F	N	I	E	L	V	Z	K	O	Y
L	O	S	D	T	W	A	V	E	M	E	O	A	P
F	B	B	B	M	O	K	Z	J	J	C	P	U	B
Z	X	P	Z	V	M	D	W	K	X	O	T	T	Z

4	1	2	6	3	9	5	7	8
8	3	6	7	5	2	4	9	1
7	5	9	1	8	4	2	3	6
9	6	1	4	2	7	3	8	5
2	8	3	5	6	1	7	4	9
5	7	4	8	9	3	6	1	2
1	2	7	9	4	5	8	6	3
6	9	5	3	7	8	1	2	4
3	4	8	2	1	6	9	5	7

URTARRILAREN
17TIK 28RA

elatzeta

2022-23 ikasturterako
Aurrematrikula!

Eskola EUSKALDUNA, GERTUKOA eta INKLUSIBOA

Ate irekiak:
Urtarrilak 17, 18, 20, 25
Ordutegia: 16:15-17:15
Aurretik hitzordua hartu behar da.

elatzeta

ARABA KALEA. 44 IRUN 943 93 77 59
idazkaria@elatzeta.net

baikara